

## PRENTSA-OHARRA

# Teknikerrek hidrogenoaren balio-kate osoan dituen gaitasunak erakutsiko ditu EHEC 2024an

- *Zentro teknologikoak lau ponentzian jorratuko du hidrogenoa sortzeko, biltegitzeko, garraiatzeko eta erabiltzeko teknologia berriak garatzen duen esperientzia eta ezagutza*
- *Martxoaren 6tik 8ra Bilboko BECen egingo den biltzarrean, gainera, hainbat erakusle izango ditu, arlo horretan I+G sustatzeko gaitasunen eta instalazioen erakusgarri*

[Eibar, 2024ko Martxoak 4] – **Tekniker** zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kideak, presentzia nabarmena izango du martxoaren 6tik 8ra Bilbao Exhibition Centerren (BEC) egingo den EHEC 2024 biltzarrean, hidrogenoaren balio-kate osoan dituen gaitasun teknologikoak jorratuko dituzten lau ponentzien bidez.

Zehazki, zentro teknologikoak foro europarraren edizio berrian erakutsiko du hidrogenoaren esparruan eskualde, estatu eta Europa mailan hainbat proiektutan eskuratutako ezagutza, bai eta hidrogenoa industrian sortzeko, biltegitzeko, garraiatzeko eta erabiltzeko teknologia berrien ikerketan eta garapenean duen esperientzia ere.

Alde batetik, Lucía Mendizabal Teknikerren Hidrogenoaren aldeko Apustuaren koordinatzaileak PVD (Physical Vapor Deposition) teknologiaren implementazioa aztertuko du, elektrolisi-stack-en osagaiak eskala handian eta modu automatizatuan fabrikatzeko, eta nazio-mailako bi lankidetzaproiekturen adibidea jarriko du. Lehenik eta behin, GREENH2PIPES, CDTIK MISIONES deialdian finantzaturako proiektua, Enagás buru duena eta Teknikerrek parte hartzen duena, PEM elektrolizagailuetarako material eta osagai berriak garatzeko, horien fabrikazio-kostuak murrizteko helburuarekin. Bigarrenik, ELEKWIND, Teknikerrek parte hartzen duen proiektua, Espainiako Gobernuaren Energia Berriztagarrien, Hidrogeno Berriztagarriaren eta Biltegitzearen PERTEren (ERHA) esparruan finantzaturakoa.

"Beste enpresa batzuekin elkarlanean dihardugu elektrolisiko stack alkalinoen errendimendua eta malgutasuna hobetzeko eta energia eolikitik abiatuta hidrogeno berdea sortzeko, kostu lehiakorragoan", aurreratu du adituak.

Bestalde, Antia Villamayor ikertzaileak PEM elektrolizagailuentzako platino-karga ultra baxuko elektrodoen fabrikazioan egindako garapenak azalduko ditu, Fernando López ikertzaileak Teknikerrek hidrogeno-atmosferen eraginpean dauden materialen karakterizazioan dituen gaitasunak erakutsiko ditu, eta Ane López adituak aplikazio industrialetarako hidrogeno-ekoizpeneko sistemen dimentsionamendu-tresnek eskaintzen dituzten aukerei buruz hitz egingo du.

Gainera, 11CL standean, Euskadiko Energia Klusterraren gunean, zentroak hainbat erakusle izango ditu, arlo horretan I+G bultzatzeko gaitasunen eta instalazioen lagin bat eskaintzeko.

Adibidez, bertaratuek hidrogenoa behar bezala banatzeko diseinatutako plaka bipolarrak hurbiletik ezagutu ahal izango dituzte erakustokian. Plaka horiek PVD teknologiaren bidez garatutako estaldura babeslea dute, korrosioa saihesteko eta eroankortasun elektrikoa handitzeko.

"Azokan, gure know how-a erakutsiko dugu elektrolisi-gelaxken diseinuan eta optimizazioan, baita hidrogeno bidezko fragilizazio-saiakuntzetarako hainbat pieza ere", gehitu du Lucía Mendizabalek.

## **Hidrogenoaren aldeko apustua**

Teknikerrek EHEC 2024an duen presentziak indartu egiten du zentro teknologikoak hidrogenoaren alde egiten duen apustu irmoa, eta I+Gekin industria deskarbonizatzen laguntzen du.

Horretarako, zentroak hidrogeno-teknologiekin esperimenduak egiteko berariaz diseinatutako laborategi bat du, eta 1 kW-ko proba-banku bat du, mintz protonikoko elektrolizagailuetarako (PEM) osagai, material eta diseinu berriak probatzeko eta kontrol- eta integrazio-estrategia berriak aztertzeko. Gainera, instalazioek 5 kW-eko elektrolizagailu bat dute hidrogenoa sortzeko.

Halaber, Teknikerrek ekipamendu bat gehitu du presiopeko hidrogeno-atmosferen eraginpean dauden hainbat materialek propietate mekanikoetan duten eragina ebaluatzeko, saiakuntza elektrokimikoen banku bat, materialen hidrogenoarekiko iragazkortasuna ebaluatzeko, eta hidrogenoa daramaten likido organikoak garatzeko eta karakterizatzeko errektore bat.

## **EHECi buruz**

Hidrogenoaren Energiari buruzko Europako Konferentzia (EHEC) Europan erreferentzia den foroa da hidrogenoaren sektorean. Bi urtean behin ospatzen da EHEC, Hidrogenoaren Espainiako Elkarteak (AeH2) antolatzen du eta hidrogenoaren arloko industriako adituak, ikertzaileak eta liderrak biltzen ditu, hidrogenoan oinarritutako teknologietan azken aurrerapenak, berrikuntzak eta garapenak partekatzeko plataforma bat eskainiz.

## **Teknikerri buruz**

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Hidrogenoaren esparruan, Teknikerrek gaitasun hauek ditu: hidrogeno berdea ekoizteko plantak diseinatu eta optimizatzea, kontrol-algoritmoak garatzea hidrogenoa sortzearen kostua minimizatzeke, biltegitarte-deposituetarako hidrogenoaren iragazkortasunaren aurkako hesi-estaldurak garatzea edo tresna analitiko digitalak prest jartzea hidrogeno berdea ekoizteko planta baten konfigurazio optimoa definitzeko eta industria-aplikazio jakin baten hidrogeno-kontsumoaren profilararen eskakizunak betetzeko.

Gainera, hidrogenoaren teknologien garapena bultzatzen duten eta zentro teknologikoaren jarduera bermatzen duten hainbat elkartetako kide aktiboa da. Petronor buru duen Hidrogenoaren Euskal Korridorearen (BH2C) bazkidea da; Hydrogen Europe Research taldeko eta Euskadiko Energia Klusterraren Hidrogenoaren Sektoreko Foroko hidrogeno-lantaldeko kide aktiboa da; Hidrogenoaren Espainiako Elkarteko eta Hidrogenoaren eta

Erregai Pilen Espainiako Plataforma Teknologikoko (PTE-HPC) kidea da; eta enpresa nazionalekin lankidetzan aritzen da teknologia horien ikerketa, garapena eta industrializazioa eskala handian bizkortzeko.

**Informazio gehiago:**

**GUK** ► Unai Macias

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) | Tel. 690 212 067